

Zurekin

Bego Vicarioren 'Ehiza' filma gailendu da Euskal Zine Bileran

Sail ofizialeko 19 filmak telematikoki ikusi ahal izan dira ekimenaren webgunean, zinebilera.eus-en



Aitor Abaroak eta Ana Goitiak aurkeztu zuten emeraldien aurkezpenaren eta sari banaketaren ekitaldia streaming bidez igandean. / ZINEBILERA.EUS

UNAI SARRIUGARTE

Lunes, 30 noviembre 2020, 20:09



Bego Vicarioren 'Ehiza' filma gailendu da Euskal Zine Bileran.

Egitasmoaren 43. edizioa pandemiaren ezohiko egoerak markatu du. Hala, Sail ofizialeko 19 filmak telematikoki ikusi ahal izan dira ekimenaren webgunean, zinebilera.eus. Aitor Abaroak eta Ana Goitiak aurkeztu zuten emeraldien aurkezpenaren eta sari banaketaren ekitaldia streaming bidez, igandean, azaroaren 29an.

Aurtengo deialdiaren epaimahaia Aitor Oñederra zinemagile eta ilustratzaileak, Erika **Olaizola aktoreak eta Mikel Ruedak gidoigile eta zuzendariak osatu** dute. Euren esanetan, genero eta izaera anitzetako lanez gozatu ahal izan dute jaialdian, istorio ikusgarri eta interesgarriez osatutakoak.

Hiru sail nagusitan eskaini dituzte sariak: film onenari, zuzendaritzarik onenari eta gidoirik onenari, alegia. Film hoberenaren Urrezko Antzarra Bego Vicarioren 'Ehiza' filmak jaso du. Epaimahaiak gaineratu zuenez, proposamen ausarta eta animazio lan ezinhobea da Vicariorena, rotoskopia teknika eta erritmoa maisuki uztartu dituena.

Zuzendaritza onenaren saria, aldiz, Aitor Mendilibar eta Ibon Goikoren 'Irten barrura' **lanak irabazi du**. Epailleek adierazi zutenenez, begirada berezi eta erakargarria eskaintzeagatik aintzatetsi diete Zilarrezko Antzarrarekin. Era berean, gidoirik onenaren aitortza Imanol G. Gurrutxagak jaso du, «Nigandik» filmerako erabili dena. Gidoi honek isiltasun eta begiraden errealitate garden bat mahaigaineratzen du, epailleek ziotenez.

Hiru garaikurrez gain, beste aitortzaren bat ere banatu dute aurtengoan. Epaimahaiak Ekain Albitek gidatutako 'Haizearen egia' filma goraiatu zuen, saharar eta euskal kulturen arteko sinergiak ezinhobeki aditzera eman izanagatik.

Esteka: <https://www.elcorreo.com/zurekin/bego-vicarioren-ehiza-20201201200805-nt.html>